

25. EUSKAL DENDA

AURKEZPENA

25 urteko ibilbidea du Arbaso Euskal Herriko Artisautza Tradizionala Sustatzeko Elkarteak eta, COVID-19aren pandemiak eragindako geldialdiaren ostean, beste behin ere, Euskal Denda antolatuko du, euskal artisautzako ekitaldirik garrantzitsuena. Beraz, Durangoko aurtengo topaketan zilarrezko ezteiak ospatuko ditu, artisautza tradizionalaren urteroko erakusleihu garrantzitsuena izanik.

Durango, abenduko zubi bakoitzean, euskal kulturaren hiri handi bihurtzen da, non artisautza tradizionalak eta garaikideak ere zeresan handia duten. Urteko azken hilabeteko 4tik 8ra bitartean, Durangaldeko azokako plaza mitikoa izango da, Euskal Herriko lurraldeetako artisau-tailerren agertoki. Guztira 52 profesionalek hartuko dute parte Euskal Dendan, eta horien artean, % 36 lehen aldiz etorriko dira, hor da berritasuna.

Euskal Dendak beste distira bat izango du gero eta dibertsifikatuagoa, zabalagoa eta heterogeneoagoa den erakusleihu batekin. Orain arte inoiz agertu ez diren gremioak izango ditu, eta horrek izaera berezia ematen dio pandemia osteko berrestreinaldi honetan. Gaur egun, bilakaera izaten ari diren lanbide tradizionalen artean, batzuetan, gizartearen eskaerarekin bat egiteko bide berriak bilatzeko haien muinaren zati bat albora uzten dutenak ere bertan izango dira. “Publikoarekiko aurrez aurreko hori da, hain zuzen ere, garrantzitsuena eta balioa ematen diona azoka honi. Topaketa horietan, bezeroak produktua nolakoa den eta nola egin den egiaztatu ahal izango du. Feed-back une horietan, artisauak aurpegia eta ahotsa jartzen die bere bezeroen gustuei”, nabarmendu du Arbasok.

Euskal Denda, beraz, ezinbesteko topalekua izango da artisautza sektorea bizia dela egiaztatzeko; horren erakusgarri da lehen aldiz etortzen diren artisauen kopurua. Durangon bilduko diren 52 artisautza-enpresetatik, parte-hartzaileen % 36, hau da, 18 lehen aldiz izango dira Durangaldeko plaza honetan. Horrek argi uzten du sektorea belaunaldiz belaunaldi berritu dela, bai eta erakundeek sektoreari lagundu behar diotela ere, pandemian ikaragarri sufritu du eta. “Ezin dugu ahaztu azokak direla gure erakusleihu nagusiak. Egia da Interneten komertzializatzen dugula, baina aurrez aurrekoa eta bezeroekin partekatzea da gure funtsezko balioa, eta hori azoketan bakarrik dugu, oro har, eta Euskal Dendan, bereziki”, diote artisauak.

HELBURUAK

Beste behin ere, Euskal Denda sektorearen erakustoki onena izango da. Helburu nagusia artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren zigiluaz.

Profesional hauek biziraungo badute, behar-beharrezkoa da, krisi garaian, artisauen lana bertatik bertara ikusaraztea; horixe baita Euskal Dendaren funtsa, hain zuzen ere. Izan ere, artisautza bizimodu bat da, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko modu bat da, baita garapen ekonomikoa sustatu eta, gaur egun, galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko modu bat ere. Horrela bada, ekimen honen inguruan Euskal Herriko artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira. Ezin dugu ahaztu artisautza bizimodu bat dela.

Gure artisautzak badu mugak gaindi ditzakeen kalitatea; beraz, horixe izango da helburua epe labur eta ertainera, noranzko horretan lan egin behar baitugu.

Esperientzia honi esker, bisitariak konprobatu ahalko du antzinako lanbideak oraindik bizirik daudela eta, era berean, artisau produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko. Hartara, ekimen honen inguruan, Euskal Herrietako artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira.

EUSKAL DENDAREN HISTORIKOA

Euskal Dendaren arrakasta hazten joan da edizio bakoitzean. Azoka egunak kontuan hartuta, 20.000 bisitari inguru izaten dira. Aurreko edizioak goia jo zuen, 34.000 parte-hartzaile izan baitziren. Sarrerako atean hartutako zenbakiak dira azokako egunetan, eta objektibotasun osoz.

Antolatzaileen iritziz, Euskal Dendaren moduko azoka berezi batera horrenbeste jende hurreratzea balio erantsia da; izan ere, argi gelditzen da bertaratzen dena kontzienteki joaten dela gozatzeko nahiaz eta bertan parte hartzen duten artisauengandik ikasteko gogoz. Beraz, Euskal Dendara joaten den publikoa, bisitari leiala da; horregatik bada, asko zaintzen dira antolakuntzako detaile guztiak, topaketa bakoitzeko ilusioa benetakoa izan dadin.

Datozkigun egunei erreparatuta, aurtengo ediziorako aurreikuspena aurreko urteetakoaren antzekoa da, bai bisitarien, bai salmenten dagokienez. Horrek esan nahi du sektorearentzako bultzada bat dela, krisi garai hauetan.

PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK

Aurreko urteetako ildoari jarraituz, Euskal Dendak Euskal Herriko lurralde guztietako ordezkariak izango ditu. Espazioak markatzen ditu ratioak, merkatu plazako 1.600 metro koadroak; horrek ezinezko egiten du Euskal Denda haztea bertan dauden ekoizle kopuruari dagokionez. Beraz, guztira, 52 artisau etorriko dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Nafarroa Beheratik. Bestalde, bertan izango diren firma askok lehen aldiz parte hartuko dute, 18 profesional izango dira. Alegia, artisauetatik % 36k estreinakoz parte hartuko dute azoka honetan, kutxu freskoa eta eraldatzailea emanez.

Lurraldeak kontua hartuta, beste urte batez, Bizkaiak izango du ordezkari gehien, 26 artisau. Gipuzkoatik 15 etorriko dira, horietako asko aitzindariak; Arabatik 5 eta Nafarroatik 6. Ipar Euskal Herriatik, Nafarroa Beherako artisau bat izango da gure artean.

Berriz ere, Durangaldeak, leku garrantzitsua izango du Euskal Dendan: bost artisauk hartuko dute parte. **Eneko Unzalu** bitxigilea etorriko da aurten ere, plaza honetan hitzordu saihestezina baitu. Egurra lantzen duen **Felix Larrañaga** berriztarra berriro elkartuko da bisitariekin, euren esker eman zioten 2018ko stand onenaren saria. **Gorakat**-eko alma mater elorriar gazteak ere ez du hitzordu hori galdu nahi, laugarren urtez izango baita. Durangaldeko plazara joateko ere finkoa da **Restaurarte** zaharberritze-tailerra, 2010ean stand onenaren irabazlea. **Iñaki Unanuek** osatzen du taldea, eta lehen aldiz parte hartuko du Durangon.

Sektoreka, aurten ehungintza da nagusi, askotariko bertsioetan; izan ere, 12 artisauen artean, osagarriak, moda edo feltroa egiten dituzte. Beraz, aurrerapen nabarian ari den sektorearen atal bat da. Bitxigintzak ere baditu ordezkariak, zazpi artisau-lantegi, hain zuzen ere, denak ekoizleak.

Ez da ahaztu behar nekazaritzako elikagaien sektoreak leku garrantzitsua egin duela Euskal Dendan, sei espezialista etorriko baitira aurtengoan, onenak bere alorrean eta, sasoiari erantzunez, euren produktuek leku berezia izango dute. Halaber, ez dira faltako zeramika, larrua, jostailuak edo euskal kirola, besteak beste, gremio klasikoak ekitaldi honetan.

NOBEDADEAK

Lehengo aldiz etorriko diren artistak honakoak dira:

ARABA. Ordezkarari arabarrak:

Membrilla: Membrilla argialetxe ibiltari eta independentea da, eta artisau-ilustrazioan eta koadernaketan aritzen da. Hego Amerikako herrietako kondairak biltzen eta zabaltzen lan egiten dute. Hainbat formatu didaktiko erabiltzen dituzte haur eta helduen irudimena eta sormena sustatzeko.

BIZKAIA

Ordezkarari bizkaitarrak honakoak izango dira:

Iñaki Unanue: bere kabuz aurkitu du forjan naturarekiko lotura eta, paradoxikoa dirudien arren, mendira eta naturara eraman ditu bere lanak. Bere eskultura-lanak erakusten du egurra, burdina eta harria guztiz menderatzen dituela.

Landalore: kosmetika ekologikoko artisau-enpresa da. Gaur egun, berrasmatzen ari da. Produktu berriak gehitzeaz gain, zerbitzu eta produktu berriak planifikatzen ari dira. 26 produktu gehiago eskaintzen dituzte, besteak beste, xaboiak, xanpu solidoak, maskara kapilarrak, baltsamoak, kremak, olioak...

Politena: arte ederrekin lotutako prestakuntza akademiko luze batekin, Politenan oihala eta ehunei bizitza ematen jarraitzen dute, zuntzak egokitzen dituzte kolonurreko ehunaren teknikekin piezak egiteko eta, horrela, antzinako komunitateen ahozko ondarea berreskuratzen.

Bitxo Bola: Bitxo Bolan etxeko txikienei diseinu original eta eskusiboak eskaintzen dizkiete. Eskuz egindako eta bertan fabrikatutako eta diseinatutako jantziak. Bereizteko modu bat da, diseinu dibertigarriekin eta tirada oso txikiko bildumekin

Marielita: eskuz egindako osagarrien marka bat da, eta elkartzen gaituen jatorria ehungintzan aurki dezazun iradokitzen dizu. Familia-tradiziotik sortutako proiektua da, ama eta alaba, patroia propioak sortuz eta maitasunez egiten dakiten guztia partekatuz.

Rupestre Orfebrería: eskuz egindako bitxi garaikideak, metal birziklatuak, hainbat bidaiatan bildutako harriak. Antzinako kulturetan oinarritutako diseinuak, berrinterpretazio garaikidearen balioa da.

Palopalu: bi lagunaren artisau-proiektua da, zaharberritzailea bata eta ilustratzailea bestea. Helburu berarekin elkartu ziren lankideak: proiektu kooperatibo bati forma ematea, partekatzen zuten grina lanbide bihurtuz. Horretarako, ilustrazioa eta kolorea aukeratu zituzten adierazpide gisa, eta egurra lanerako euskarri material gisa.

Sacotermia: osasunean eta ongizatean interesa duten artisauak dira. Josteko lanak erabiltzaileari "CuidArte Sana" eslogana egia bihurtzeko aukera ematen dioten elementuak eta osagarriak sortzera bideratu dituzte.

GIPUZKOA

Gipuzkoako lurraldetik datozenak ere badira batzuk:

Laia Varela: bitxi marka garaikidea da; kutsu geometriko eta minimalistak ditu, eta arte eta arkitektura modernoan du inspirazio iturri. Bitxiak Espainiako eta Frantziako museo eta bitxitegietan saltzen dituzte.

EM Zirrimarra: 2012an jaiotako proiektua da. Sorkuntza prozesua bozetoekin hasi zen, eszenifikazio serigrafikora iritsi arte. Autorea ilustrazioaz baliatzen da munduari mezuak transmititzeko.

Dir Dir: arte ederretatik iritsi da Sara Miguelez Garitano bitxigintzara, eta hor jartzen ditu bere arima eta sormena zoriontasuna eta bakea transmititzeko. Edertzeaz gain, istorioak kontatzen dituzten bitxiak egiten ditu.

Kromosoma: enpresa horretan uste dute eraikitzen duten joko eta jostailu bakoitza familia osoak erabil dezakeela, horrela, jolas parte hartzailea sustatuz. Garai bateko jolasak eta jostailuak berreskuratu nahi dituzte, egurra transmisio euskarriztat hartuta.

Lisbeth: ehungintzako tailer honetan, haurrek protagonismoa dute; oso sinplea da baina, era berean, handia. Lerro garbientetik, etxeko txikiaren bizitza erraztea da asmoa.

Mouxuka: Montessori filosofia motor izanik, firma horretatik beharrezkotzat jotzen dute haur txikiarentzako osagarriak diseinatzea, pertsonalizatuak eta bakarrak. Horregatik kokatu dira erreferente gisa eremu honetan.

Arratibel: Arantxa Arratibel margolariak buelta eman dio orain arteko bere lanbideari, Eguzkiloreak erabiliz, erronka profesional eta pertsonal berria bilatu baitu. Etxerako edo jantziatarako apaingarriak egiten ditu, diferentzia markatzen dituen elementuak baitira.

Darama: naturan inspiratua, estilo xume eta finarekin, Darama izenaren atzean dagoen artisauaren lanak dira. Gazte izaeraren balioa eta etorkizuna bat eginda.

NAFARROA BEHERA

Lurralde horretatik honako artisaua etorriko da:

Katealde: hiru belaunalditako pate ekoizleek produktu hau mahai fin eta eskusiboenetara eraman dute. Ezagutzen ez duten sekreturik ez dago, baina ez dezatela argitu zergatik den beraiena munduko paterik onena.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal Dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta

25. EUSKAL DENDA FITXA TEKNIKA

EDIZIOA: 25.a

DATA: abenduaren 4tik 8ra

ORDUTEGIA: Goiza, 11:00 - 14:30
Arratsaldea, 16:30 - 21:00
Asteazkena 8, 20:00ak arte

INAUGURAZIO OFIZIALA: Larunbata, abenduak 4, 10:30ean

ERAKUSTOKIAK: 52

LURRALDEKA

Araba 5
Bizkaia 25
Durangaldea 5
Gipuzkoa 15
Nafarroa Behera 1
Nafarroa 6

SEKTOREKA

Nekazaritzako elikagaiak 6	Ehuna 12
Zeramika 3	Kosmetika 4
Lore lehorrak 1	Feltro 2
Zapatagintza 1	Panpigintza 1
Zura 1	Zaharberritzea 1
Serigrafia 1	Forjaketa 1
Larrua 3	Liburu-koadernaketa 1
Bitxigintza 7	Jostailuak 2
Imitaziozko bitxigintza 4	Euskal Kirola 1

LEKUA: Durangoko udal merkatu plaza
1.600 m²

BABESLERIK NAGUSIENA: Bizkaiko Foru Aldundia

BABESLEAK: Durangoko Udala
Durangoko Turismoa
DEIA
ONDA VASCA
HAMAICA
ANBOTO

INTERNETEKO HEDAPENA: www.euskaldenda.info
euskaldenda.blogspot.com/
www.arbaso.com

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA: Lorea Madina
prentsa@arbaso.com
688 87 54 81